

# EUSKARAREN FRANZESIAK KINUEIRA HILSO SARB INDARBERA

**X**IX. mendearen bukaera aldera hainbat ziren euskara hurrengo mendera iritsiko ez zela uste eta ideia hori lau haizeetara barreiatzen zutenak. Hala ere, usteak ez ezik iragarpen apokaliptikoak ere us-tel gertatu ziren orduan. Izan ere, euskarak XX. mendearen hasierara iritsi baitzen, hori bai, hedadura geografikoaren, funtzionalaren eta hiztun kopuruaren aldetik are makalago... baina, euskara, euskaraz jarduten zuen hiztun-erkidegoa bizirik zegoen.

XX. mendean zehar ere, hainbatetan, euskara XXI. mendera iritsiko ez zela iragartzen zuenik bazegoen bazterretan. Testuinguru horretan sakonduz, ezagunak dira, besteren artean, Euskal Herri kontinentalean euskarak mende berria ikusiko ez zuela Iparraldeko euskaltzale ezagunen esanak... eta hor... hor ere euskarak bizirik dirau, oraindik bizirik... eta bizirik dagoen artean indarberritzeko aukerak ere hor diraute bizirik, orain, inoiz baino biziago!

## ERRAMUN **OSA**

SABINO ARANA FUNDAZIOKO  
ZUZENDARITZA BATZORDEKO  
KIDEA ETA MINTEGIKO  
KOORDINATZAILEA

# AURKE

Hizkuntzen eta hizkuntzez baliatzen diren hiztun erkidegoen etorkizuna ez dago inon idatzita. Euskararen bilakaerak erakusten digu hori. Aitormena, araubide egokia, ahulduta dagoen hizkuntzaren aldeko hizkuntza politika eragingarria, herritarren aldekotasuna zein konpromiso beroa eta askotariko baliabideak. Horra hor ahuldutako hizkuntza bat indarberritzeko ezinbesteko osagaiak, euskararen lurraldeetan batetik bestera indarberritzeak izan duen abiada –motelagoa zenbait tokitan, bizkorragoa bestetan– esplikatzeko helduleku gisa baliatu beharrekoak.


Euskararen indarberritzea ez dago pertsona edo elkarte/erakunde bakar baten eskuetan, denon eskuetan dago, inon egongo bada! Halakoetan ere ez baitago erantzukizun guztia inoren bizkar uzterik. Denok egin dezakegu are gehiago gure hizkuntza noranahikoagoa bilaka dadin. Zer gaude gu, gutariko bakoitza egiteko prest euskarak, Europako hizkuntzarik zaharrenak, hemengoak etorkizun oparagoa izan dezan? Horra hor gutariko bakoitzak –ez utzi lagun hurkoaren bizkar galderaren erantzuna, otoi– erantzun beharreko galdera.

Esan bezala euskarak garrantzi handiko urratsak egin ditu indarberritzearen noranzkoan. Inoizko hiztun gehien ditu, gazte belaunaldien artean batez ere. Indarberritze bizkorra bizi du EAEn, motelagoa Nafarroan eta, historian lehenbiziko aldiz, indarberritze zantzuak antzematen dira Iparraldean. Erabilera-eremuei dagokienez ere bere hedadura agerikoa da... eta erronka zaharren aldamenean (hiztunak eta erabilera-eremuak irabazi) berriak agertu zaizkio (euskaraz dakitenek euskara are gehiago baliatzea, euskaldun pasiboen ekarpena hizkuntza indarberritze kontuetan, eta abar).

Kezka horrek, gogoeta-nahi horrek bultzatu du Sabino Arana Fundazioa “Euskararen indarberritzea XXI. mendean, perspektibak eta erronkak” izeneko mintegia antolatzerara. Gogoeta-saioa bi egunetan egin zen; batetik, Bilbon, urriaren hogeian, Euskalduna Jauregian, Onda Vasca irratiarekin lankidetzan zuzenean emititu zena. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi guztiak gonbidatu ziren. Tamalez, Eusko Jaurlaritzak sostengatzen duten bi alderdiak -PSE eta PP-, parte hartzeko konpromisoa hartu bazuten ere, azken unean ez ziren agertu; bestetik, Donostian, biharamunean, goiz eta arratsalde iraun zuen saio mamitsuan. Bertan esku hartu zuten euskararen eremuan ari diren elkarte eta erakunde esanguratsuenak. Bihoazkie guztiei, esku hartu zuten guztiei, txostenak prestatzen aritu zirenei nola baita mintegiaren antolaketa erraztu zuten Fundazioko langileei ere nire eskerroneko hitzak.

Hamargarren urteurrena dela eta, euskara ardatz duen *HERMES* aldizkariaren ale berezi honetan, Donostian hizlari jardun zutenean eta, azken orduko gertaera tamalgarri batengatik, hitzaldia ematerik izan ez zuen Joxan Muñoz adiskidearen idatziak datoz. Horrez gain, Nerea Azurmendi kazetariak Angel -Andu- Lertxundiri, 2010. urtean Saiakera Sari Nazionala jaso duenari egindako elkarrizketa bikaina dator, bi hizkuntzetan egina. Horra hor, ale honen edukia.

Gogoeta... ideiak dira gizarteak mugiarazten, berritzen laguntzen dutenak. Gurea hori da! Ideiekin gure herria indartzen eta eraberritzen laguntzea, eskuetan ez baitugu beste ezer hori baino indartsuagoa, bidezkoagoa, demokratikoagoa, eragingarriagoa, bideragarriagoa eta iraunkorragoa izan daitekeenik!



# EUSKARA: DEL TÁNIDO DE CAMPANAS A MUERTO LA NORMALIZACIÓN

**A** finales del siglo XIX eran muchos los que difundían a los cuatro vientos la opinión y la idea de que la lengua vasca, el euskera, no conseguiría llegar al siguiente siglo. Sin embargo, en aquella época no solo erraron en sus opiniones sino que también lo hicieron en sus apocalípticas predicciones. De hecho, el euskera consiguió llegar a principios del siglo XX, pero, eso sí, su situación era más débil tanto en extensión geográfica y funcional como en el número de hablantes.

También durante el siglo XX era frecuente encontrar en cualquier lugar gente que pronosticaba que el euskera no iba a llegar al siglo XXI. Profundizando más en ese contexto, son conocidas, entre otras, las afirmaciones de conocidos vascófilos de Iparralde en el sentido de que el euskera no lograría ver el nuevo siglo en el País Vasco continental... y ahí sigue... el euskera permanece vivo, todavía vivo... y mientras esté vivo igualmente perduran las posibilidades para su revitalización, ¡ahora más que nunca!

En ningún sitio está escrito el futuro de las lenguas ni el de las comunidades lingüísticas que se sirven de las mismas. La evolución del euskera da fe de que las previsiones más agoreras pueden no cumplirse. Su reconoci-

## ERRAMUN OSA

MIEMBRO DE LA JUNTA RECTORA  
DE LA FUNDACIÓN SABINO  
ARANA Y COORDINADOR DEL  
SEMINARIO

# PRESEN

miento y una normativa legal apropiada, una política lingüística eficaz –proactiva – a favor de la lengua más débil, la adhesión y el compromiso de la ciudadanía, así como recursos de todo tipo son los ingredientes indispensables para la revitalización de una comunidad lingüística en retroceso, elementos en los que es preciso apoyarse para explicar el impulso –en unos lugares más suave, en otros más vigoroso – que ha tomado la recuperación o normalización del euskera en todos los territorios.

La normalización del euskera no está en manos sólo de una persona, ni de una asociación o institución, está en manos de todos, ¡si es que ha de estar en algún sitio concreto! No hay que dejar la responsabilidad que a todos y todas nos concierne en las espaldas de los demás. Todos podemos hacer, debemos hacer aún más para que el euskera llegue a ser válido en todos los ámbitos de la vida. ¿Qué vamos a hacer nosotros, cada uno de nosotros, para que el euskera, la lengua más vieja de Europa, y a su vez, una lengua moderna gracias a la labor desarrollada los últimos decenios, tenga un futuro más halagüeño? He ahí la pregunta. Todos nosotros estamos interpelados y obligados a dar cumplida respuesta –por favor, no dejemos la respuesta a la pregunta a cargo del prójimo –.

Como se ha dicho, el euskera ha dado pasos muy importantes en el camino de la normalización. Tiene más hablantes que nunca, sobre todo entre las generaciones más jóvenes. En la CAV está viviendo una recuperación o normalización más rápida; más lenta en Navarra y, por primera vez en la historia, en Iparralde se perciben indicios de recuperación. También es patente su expansión en lo que a ámbitos de uso se refiere... y junto a los viejos retos (ganar hablantes y ámbitos de uso) ahora se le presentan otros nuevos (que los que saben euskera lo utilicen aún más, la aportación de los euskaldunes pasivos en los diferentes capítulos de la normalización, etc.).

Esa preocupación, ese deseo de reflexionar, es lo que llevó a la Fundación Sabino Arana a organizar este seminario desarrollado bajo el título de “Normalización del euskera en el siglo XXI, perspectivas y retos”. La jornada de reflexión se desarrolló durante dos días; por un lado en Bilbao, el veinte de octubre, en el Palacio Euskalduna, jornada que fue emitida en directo en colaboración con la emisora de radio Onda Vasca. A ella se invitó a todos los partidos con representación en el Parlamento Vasco. Lamentablemente, los dos partidos que sustentan el Gobierno Vasco -PSE y PP- al final no asistieron, aunque se habían comprometido a participar; por otro lado, al siguiente día, en San Sebastián, se desarrolló una jornada muy sustanciosa, en sesiones de mañana y tarde. En las mismas intervinieron las asociaciones y organismos más significativos que operan en el ámbito del euskera. Sean mis palabras de agradecimiento para todos, para todos los que intervinieron, tanto para los que prepararon las ponencias como para los miembros de la Fundación, que facilitaron la organización de este seminario.

Con motivo de su décimo aniversario, en este número especial de la revista *HERMES* que tiene como eje al euskera se reproducen por escrito las intervenciones de quienes hablaron en San Sebastián, también la ponencia de nuestro amigo Joxan Muñoz, que no pudo dar su conferencia debido a un lamentable suceso. Y además, se reproduce la excelente entrevista, llevada a cabo en los dos idiomas, que la periodista Nerea Azurmendi hizo a Angel -Andu- LERTXUNDI, Premio Nacional de Ensayo 2010. Ése es el contenido de este número.

Pese a lo que en muchas ocasiones parece, la reflexión, las ideas son las que mueven, renuevan la sociedad. Ésa es la misión de la Fundación Sabino Arana. Ayudar con las ideas al fortalecimiento y renovación de nuestro pueblo, porque no tenemos en nuestras manos nada que pueda ser más potente, más justo y democrático, ni más eficaz, viable y duradero que las ideas expresadas y defendidas con las palabras.

# NORMALIZACIÓN